17 nº zbk

Beasaingo Udala

# Beasaindik

JULIO-AGOSTO **2017 UZTAILA-ABUZTUA** **Udal Aldizkaria** *Revista municipal*



## AURKIBIDEA | *ÍNDICE*

**ETORKIZUNEKO BEASAIN ERAIKITZEN**

**2** ¬ Hirigintza proiektu garrantzitsuak ditugu eskuartean aurtengo udan
¬ AGIPASE zerbitzuak 16 pertsonari egin die arreta lehen hilabeteetan
¬ *Protocolo de actuación contra los deshaucios*
¬ Uda sasoian hasiko dira Hirigintza proiektu nagusienak

**BEASAIN, HERRI BIZIA**

**4** ¬ San Joan bezperako esku dantza
¬ Garaiko produktuen ekaineko azokan gazta tailerra
¬ San Fermineko lau t'erdiko txapelketako pelota partidak
¬ Herri kirolak Arriarango San Pedrotan
¬ LGTBI pertsonen eskubideen nazioarteko egunean, Igartza argiztatuta
¬ Marimurumendi probaren prestaketa
¬ Ondo ibili ondo izan ekimenaren ikasturte amaierako bilkura

**BEASAINDARRAK PROTAGONISTA**

**6** ¬ Alfil Xake Elkartea
¬ Katuen lagunen elkartea

**BEASAINDARRENTZAKO INFORMAZIOA**

## Urteko hirigintza proiektu nagusiei udan emango zaie hasiera

***Las principales obras del año, en verano***

Beasaingo Udala | Loinazko San Martin plaza - 20200 Beasain | 943 02 80 50 | udala@beasain.eus

## GUTUNA



**Leire Artola**
Hirigintza zinegotzia

### HIRIGINTZA PROIEKTU GARRANTZITSUAK DITUGU ESKUARTEAN AURTENGO UDAN

Udako egun eguzkitsu eta beroez batera emango zaie hasiera aurtengo hirigintzako egiteko nagusiei. Gainerako erabaki eta proiektu guztiek bezalaxe, hirigintza lan guztiek dute helburu herritarren beharrei erantzutea eta beren ongizatea hobetzea, era horretan eguneroko bizitza guztioi erosoago egiteko.

Horregatik, legealdi hasieran ikuskaritza teknikoak egin genituen ikastetxeetan, zein behar zituzten bertatik bertara ezagutzeko. Lehentasunak zehaztu eta behar horiei irtenbidea ematen saiatu gara denbora honetan. Aurten, hain zuzen ere, Murumendi Eskolako gimnasioko sabaia berritu dugu eta eskailerak egokitu eta berrituko ditugu udan. Lizeoko fatxada ere guztiz eraberrituko da eta lanak Eusko Jaurlaritzak hartuko ditu beregain (600.000 euro). Udalak, gainera, diruz lagunduko du La Salle ikastetxeko estaldura proiektua, BKL taldeak entrenamendu eta partiduak bertan egin ditzan.

Loinatz futbol zelaiaren erabilera aukerak areagotzeko, zelaia handitu eta belar artifiziala jarriko da. Amaitzeko, ohikoak diren kale asfaltatzeak ere gauzatuko ditugu eta Zazpiturrieta eta Nekolalde kaleetako bizilagunen eskari eta beharrei erantzun emanez, kaleak berrituko dira.

Uda beraz, proiektuz josia datorkigu eta oporren bueltan azal berrituta izango dugu herria! Berriketa garaia dugu udakoa, atera etekina!

***Importantes proyectos urbanísticos este verano***

*Con la llegada del verano darán comienzo las actuaciones urbanísticas previstas para este año. Las nuevas escaleras de Murumendi, la mejora de la fachada del Lizeo, el cambio de césped y ampliación del campo Loinaz, los asfaltados y la reurbanización de las calles Zazpiturrieta y Nekolalde serán algunas de las obras que se realizarán en los próximos meses. Asimismo, el Ayuntamiento subvencionará parte de la obra de la cubierta de La Salle para darle a este espacio un uso público. Gracias a ello, en adelante, BKL podrá entrenar y jugar los partidos en el centro de Beasain para el disfrute de toda la población.*

*Por tanto, este verano llega cargado de actuaciones con el objeto de seguir respondiendo a las necesidades de la población y seguir mejorando su bienestar y día a día.*



## AGIPASE ZERBITZUAK 16 PERTSONARI EGIN DIE ARRETA LEHEN HILABETEETAN

Pertsonen eta kasu honetan, familien ongizatea helburu hartuta, Udalak, Agipase elkartearen eskutik programa berria abiarazi zuen duela hilabete batzuk banaketa prozesuan dauden edo egoera horretatik pasa diren gurasoei, krisi familiar batean dauden pertsonei eta familia eredu berriei laguntza eta orientazioa eskaintzeko. Zerbitzuaren helburu nagusia, beraz, gurasoak orientatzea eta erantzukidetasunean gaitzea da familia egoera berriei aurre egiten jakiteko.

Dagoeneko 16 pertsona gerturatu dira, Urbi-etxen kokatua dagoen bulegora. Kontsultek 30 eta 60 minutuko iraupena izan dute eta nabarmentzekoa da programan parte hartu dutenen %75 emakumeak izan direla. Abendura bitartean eskainiko da zerbitzua, hileko lehen asteartean, egun osoz, eta interesa duen edonor gerturatu daiteke bulegora.

## *PROTOCOLO DE ACTUACIÓN CONTRA LOS DESAHUCIOS*

*En defensa de los derechos de la ciudadanía, el Ayuntamiento, junto a la Plataforma Stop Desahucios, ha elaborado un protocolo de actuación para coordinar y apoyar con la máxima eficacia posible los casos de desahucio.*

*Para ello se ha creado una comisión que se encargará de hacer el seguimiento de los casos detectados y de ayudar a las personas afectadas bien en las negociaciones con los bancos o por medio de la asistencia jurídica en caso de que la persona o familia afectada tenga la necesidad de hacer frente a un proceso judicial y no le corresponda un servicio judicial gratuito.*



# UDA SASOIAN HASIKO DIRA HIRIGINTZA PROIEKTU NAGUSIENAK

Datozen asteetan emango zaie hasiera urteko hirigintza obra eta proiektu esanguratsuenei. Horien artean ditugu Loinatz futbol zelaiko belar aldaketa, Zazpiturrieta kalea berurbanizatzea edotaLizeoko fatxada berritzea.

**Hobekuntzak ikastetxeetan**

| MURUMENDI: gimnasia gela eta eskailera | ALKARTASUNA LIZEOA: fatxada | LA SALLE: estaldura |
|---|---|---|
| Gimnasia gelako sabaia berritu eta jaitsi da gunea errazago berotzeko eta energia aurrezteko.<br>Udan eskailerak egokitu eta berrituko dira. | Fatxada guztiz berrituko da, inpermeabilizatzeko eta ur sartzeak ekiditeko.<br>Obrak Eusko Jaurlaritzak hartuko ditu bere gain (600.000 euro). | Udalak ikastetxea diruz lagunduko du, estaldura eraiki dezan. Trukean, jolastokiari erabilera publikoa emango zaio eta BKL elkarteak bertan egin ahal izango ditu entrenamendu eta partiduak. |

***El cambio de hierba del campo Loinaz el proyecto estrella de este verano***



*Ya han comenzado las obras de ampliación y cambio de césped del campo de futbol Loinaz.*

*El principal objetivo de este proyecto es aumentar el uso del campo en respuesta a las necesidades y peticiones del club. Y es que, su uso está casi reservado al primer equipo, pero el número de equipos de futbol, sobre todo femeninos, ha aumentado considerablemente en los últimos años. Por tanto, la reforma del campo permitirá a grupo femeninos y de diferentes categorías jugar en este campo municipal.*

***Asfaltado y reurbanización de la calle Zazpiturrieta y Nekolalde***



*Como cada año, se aprovecharán los meses de verano para mejorar el asfaltado de varias zonas del municipio. Concretamente se actuará en las calles Mariarats, Esteban Lasa, Andra Mari, La Salle, Joan Iturralde, Erauskin, y Zaldizurreta.*

*Asimismo, en julio se renovarán las calles Zazpiturrieta y Nekolalde en respuesta a las necesidades de los y las vecinas. Con el fin de adecuar la calle a las personas, en Zazpiturrieta se ampliará la acera donde están ubicadas las viviendas y se eliminará la acera de enfrente. Aprovechando esta actuación se asfaltará la calle y se mejorarán los servicios de saneamiento. También se mejorarán los servicios de saneamiento y la iluminación de la calle Nekolalde y se nivelarán la acera y la carretera para mejorar la accesibilidad de las personas.*

# EKAINEAN BEASAINEN













San Joan bezperako esku dantza





Garaiko produktuen ekaineko azokan gazta tailerra







San Fermineko lau t'erdiko txapelketako pelota partidak (Argazkiak: Carlos Mediavilla)







Herri kirolak Arriarango San Pedrotan



Ekainak 28an, Igartza argiztatuta



Marimurumendi probaren prestaketa



Ondo ibili ondo izan ekimenaren ikasturte amaierako bilkura

# ALFIL XAKE ELKARTEA

**Alfil Xake Elkartea, xakean jokatzeko erreferentziazko entitatea da Beasainen. Elkarteak helburu du kirol hau sustatzea eta herritarrei xakean jokatzeko aukera eskaintzea.**
**Loinatz jaietan txapelketa ezberdinak antolatzen dituzte eta urtean zehar ikastetxeekin lankidetzan aritzen dira, eskola kirolaren baitan.**

*"La sociedad ajedrecista Alfil de Beasain tiene como objetivo impulsar la práctica de este deporte en Beasain. Para ello organizan diferentes torneos en las Loinaces y colaboran durante el año con los centros educativos del municipio dentro del deporte escolar"*

**Zenbat urte daramatza elkarteak martxan?**

Elkartea 1959. urtean sortu zen, baina xake taldeak 47 urte daramatza Nazioarteko Xake Txapelketa antolatzen eta bertan parte hartzen.

***¿Cuántos miembros sois y qué actividades organizáis?***

*La sociedad Alfil cuenta con 2 equipos federados que participan en las distintas competiciones y torneos. Son de mencionar el Torneo Internacional San Martín y otros torneos como los que tienen lugar en Eibar, Errenteria o Amorebieta.*

*Además del Torneo Internacional que organiza Alfil cada año en fiestas, desarrollamos otras muchas actividades: todos los sábados de 11:00 a 13:00 la sociedad está abierta a todas las personas que quieran aprender y practicar el ajedrez con los jugadores de la sociedad. Asimismo, hemos llevado a cabo sesiones de enseñanza de ajedrez junto a Asmube y el Centro Escolar Murumendi. Dentro del Deporte Escolar en Goierri, también hemos llevado a cabo sesiones de entrenamiento y jornadas de competición con participantes tanto de Beasain, como de Lazkao y Ordizia.*

*Por último, hemos organizado el Torneo de ajedrez patrocinado por Kutxa y el Torneo Juvenil en fiestas, en los cuales ha participado el alumnado del Deporte Escolar y Murumendi.*



**Aurten, lehen aldiz, Loinazko San Martin Nazioarteko xake jokaldiak herri erdigunean ospatu dituzue. Jende asko gerturatu al da jokaldiak ikustera?**

Orain artean elkarteak antolatu duen Nazioarteko Xake Txapelketa CAFeko jangelan ospatu izan da. Txapelketari ikusgarritasun handiagoa emateko helburuarekin, jaietan, herri erdigunean egitea proposatu genuen eta horrela egin dugu aurten eta egia da jende gehiago gerturatu dela jokaldiak ikustera eta txapelketa ezagutzen ez zuten herritarrek ezagutzeko aukera izan dutela. Datorren urtera begira erakargarriagoa bihurtu nahi dugu.

**Merchandising-a ere sortu duzue elkarteko irudiarekin, zein da helburua?**

Xakean dabiltzan gainerako taldeek beren ekipazioa zutela ikusita, gure talde federatuentzat zerbait sortzea pentsatu genuen. Jertseak egin ditugu eta kamisetak edota poloak ere egingo ditugu gure taldearen itxura zaintzeko eta indartzeko.




**Para aquellas personas que no conocen este deporte, ¿qué aporta el ajedrez a la persona?**

*El ajedrez desarrolla dos facetas fundamentales: la estabilidad emocional y el espíritu deportivo. En este sentido la participación en una competición exige serenidad, concentración y autocontrol. Por tanto ayuda a desarrollar la atención, la concentración y la memoria y todo ello, refuerza la creatividad y los procesos de razonamiento: análisis, cálculo, evaluación, selección… y es destacar también que antes y después de cada partida los jugadores, con el mayor respeto, se dan la mano al margen del resultado obtenido.*

Lau Katu Beasain

# KATUEN LAGUNEN ELKARTEA
# *ASOCIACIÓN AMIG@S DE LOS GATOS*

*La asociación Lau Katu de Beasain es una asociación sin ánimo de lucro que tiene como objetivo cuidar y controlar las colonias de gatos callejeros.*

*El Ayuntamiento ha firmado un convenio de colaboración con la Asociación para el cuidado, la manutención, la esterilización y el seguimiento de estos animales.*

**Harremanetarako** *Contacto*

Telefono y wasap: **688 611 914**
Email: **laukatubeasain@gmail.com**
Facebook y blog: **lau katu beasain**

**"Lau Katu, katuen lagunen elkarteak, Udalarekin lankidetza hitzarmena sinatu du kaleko katuen zaintza eta jarraipenerako"**

***¿Cuál es la función de la asociación?***

*Nuestra mayor preocupación son los gatos comunes que deambulan por los barrios de Beasain. Animales que sobreviven en unas situaciones de total desprotección ya que no tienen donde guarecerse, no cazan como antiguamente para alimentarse y dependen de la buena voluntad de algunos vecinos que los alimentan.*

*NO es función de Laukatu ni la acogida ni la recogida de gatos abandonados. La recogida de animales la realizará la protectora de animales de Gipuzkoa.*

*Pedimos la colaboración de los vecinos, porque NO tenemos local ni infraestructura para recoger los gatitos abandonados, por tanto si alguien recoge un gatito abandonado, lo puede tener en acogida en su casa hasta que se busque un adoptante adecuado.*

**Udalarekin sinatutako hitzarmenaren baitan, zein ekintza burutuko dituzue?**

Beasaingo kaleko katuen jarraipen eta kontrola egingo dugu eta hilero bi edo hiru katu esterilizatu, desparasitatu eta kalean utziko ditugu berriro ere. Era berean, katuak zaindu eta elikatuko ditugu, baina azken puntu hau jorratzen ari gara oraindik eta momentuz, bizilagunek ematen diete jaten katuei.

Bestalde, sentsibilizazio kanpainak ere egingo ditugu eskoletan eta oro har herrian herritarrek esterilizazioa zeinen garrantzitsua den eta animaliak kalean uzteak zein ondorio dituen jakin dezaten. Eta animalien adopzioa sustatzeko kanpainak ere abiaraziko ditugu.

***Consideráis también necesaria la sensibilización de la población sobre el tema. ¿Por qué?***

*Si, porque este proyecto solo trae beneficios para el pueblo:*

- *Se evita la proliferación de gatos mal nutridos y enfermos.*
- *Se evita la proliferación de roedores y cucarachas en el entorno de los gatos al ser éstos sus depredadores naturales.*
- *Mayor limpieza del entorno. Se utilizan contenedores de pienso, atendidos por personas de la asociación o colaboradores, con lo que se evita que se echen restos de comida orgánica, muchas veces con buena intención.*
- *Con la esterilización, se eliminan las molestas peleas, los olores y el marcaje por el territorio o entre machos por las hembras.*



***¿Has visto alguna vez gat@s con alguna de estas marcas en la oreja?***

*Significa ese gat@ callejero ha sido esterilizado y forma parte del método y programa CES.*

*Estos gatos no deben de ser capturados de nuevo, salvo en caso de enfermedad. Se les debe dejar seguir viviendo en su colonia para proporcionar un control de la población de gatos ya que hay estudios que demuestran que simplemente por estar ahí, evitan que lleguen nuevos gatos a la zona y, además, al estar esterilizados, no tendrán nuevas camadas.*

igartza musika

## UZTAILA
*julio*

KONTZERTU GUZTIAK ...
IGARTZAKO JAUREGIAN

**14**
22:00

### Oro Bat



**Asier López**
*musikagilea*

**21**
22:00

### Tenpora



**Hasier Oleaga**
*Bateria*
**Itsaso Etxebeste**
*Baxua*
**Beñat Barandiaran**
*Gitarra*
**Juantxo Zeberio**
*Teklatuak*
**Elene Arandia**
*Ahotsa*

**28**
22:00

### Jimmy Muelles



**INFORMAZIORIK**

## ABUZTUA
*agosto*

IGARTZAKO JAUREGIAN

### Txalaparta + Flamenko

**3**
22:00




**Berriketan Taldea**

# DATUEKIN JOLASEAN

**UDAL WEBGUNEA** *WEB MUNICIPAL*

**Udal webgune berriak hiru hilabete daramatza martxan eta dagoeneko 41.833 bisita jaso ditu eta 377.092 atal eta albiste ezberdin kontsultatu dituzte herritarrek.**

*La nueva web municipal lleva TRES meses en marcha y en este tiempo ha recibido más de 41.800 visitas y la población ha consultado 377.092 apartados y noticias de la web.*

# UDAKO ORDUTEGIA
# *HORARIO DE VERANO*

## UDAL BIBLIOTEKA

**UDAKO ORDUTEGIA** *HORARIO DE VERANO*

**Ekainaren 19tik irailaren 15era (biak barne)**
*Del 19 al 15 de septiembre (ambos incluidos)*

| | |
|---|---|
| **Goizez** *Mañanas* | **8:00-13:30** |
| **Arratsaldez** *Tardes* | **Itxita** *Cerrado* |

## ANTZIZAR KIROLDEGIA

**•KANPOKO IGERILEKUAK** *PISCINAS EXTERIORES*•

| | |
|---|---|
| **Astelehenetik ostiralera**<br>*De lunes a viernes* | **11:30-20:30**<br>*11:30-20:30* |
| **Larunbat, igande eta jai egunak**<br>*Sab., dom. y fest.* | **11:30-20:00**<br>*11:30-20:00* |

**•KIROL INSTALAZIOAK** *INSTALACIONES DEPORTIVAS*•

| | |
|---|---|
| **Astelehenetik ostiralera**<br>*De lunes a viernes* | **7:00-22:30**<br>*7:00-22:30* |
| **Larunbat, igande eta jai egunak**<br>*Sab., dom. y fest.* | **8:00-20:00**<br>*8:00-20:00* |

**•BIBLIOPISZINA ZERBITZUA** *SERVICIO DE BIBLIOPISCINA*•

**Irailaren 15era arte, 16:00etatik 20:00etara**
*Hasta el 15 de septimebre de 16:00 a 20:00*

## IGARTZA MONUMENTU MULTZOA

**Uztailaren 1etik irailaren 15a bitartean**
*Desde el 1 de julio hasta el 15 de septiembre*

**Asteazkenetik igandera 11:00-14:00 eta 16:00-19:00**
*De miércoles a domingo 11:00-14:00 y 16:00-19:00*

**Aurretik hitzartzen bada, edozein egun eta ordutan**
*Con cita previa horario flexible* **Telf: 605 771 881**

# LOTURAK *ENLACES*

- **kzGunea**
  www.kzgunea.eus
- **Musika Eskola**
  www.beasaingomusikaeskola.eus
- **Antzizar kiroldegia**
  www.antzizar.net
- **Udal Euskaltegia**
  www.udaleuskaltegiak.eus

Lege gordailua SS 403-2016

**Beasaingo** Udala